

Enara Azpitarte
Naia Mendia
Laura Solana
Eneko Munitxa
Miguel Lancao

DIRU-ITURRIAK

Gure enpresaren diru-sarrera nagusia hurrei eta haien familiei eskaintzen dizkiegun zerbitzuak dira. Gure enpresak bi motatako diru-sarrerak izango ditu: Ordainketa bakarreko diru-sarrerak eta Ordainketa errepikariak. Baina, gure enpresa, gehien bat ordainketa errepikariak jasoko ditu.

Ordainketa bakarreko diru-sarrerei dagokienez, bertan sartzen diren zerbitzuak hurrengoko hauek dira: hizketaldi bat edota kurtso bat. Ordainketa errepikari dagokionez, bertan sartzen edo kontuan hartzen dena hilero ordaintzen den kuota da. Bertara joaten diren haur eta familiek hilero kuota bat ordaindu beharko dute gure enpresak eskainitako zerbitzuak askatasun osoz erabiltzeko.

Gure diru-sarrerak 2 talde edo multzotan sailkatu ditugu: Prezio finkoak eta Prezio dinamikoak.

- **PREZIO FINKOAK:** Hilero kuota bat ordaindu beharko dute bertara etortzen diren haurren familiek. Hilero familiek 150euroko kuota bat ordaindu beharko dute haurrek familiekin batera gure zerbitzuetaz disfrutatzen eta ikasteko. Gure aisialdiko esparrua astero astelehenetik barikura arte egongo da zabalik, eta bertan nahi duten haur eta familia guztiak ongiatorriak izango dira. Gure zerbitzuek haurren eta familiaren arteko harremana estutzen eta atxikimendu figura sustatzea ahalbidetuko dute. guretzako haurren garapena oso garrantzitsua eta ezinbestekoa da etorkizun on bat izateko

Ordaindu beharreko kuota gora edo behera egin dezake, familia eta haurrek datozen egunen kopuruen arabera.

Astean bi egunetan soilik joanez gero 60 euroko kuota ordaindu beharko dute. Astean hiru egunetan badoaz, berriz, 70 euro.

Haur bakoitzari kuota bat ordainduko zaio, hobeto esanda bere familiari, baina honekin esan nahi duguna hurrengoko hau da, familia batek 2 haur apuntatzen badituzte bi haurren kuota ordaindu beharko dute. Badaude egunak haurren eta familiaren artean egiteko ekintzak egongo direla, egun hoietan haur bakoitza familiako kide batekin joan daiteke, baina familiako kide horrek ez du ordaindu beharko.

Izan daiteke eskainitako kuota familia askok ezin ordaindu izatea, baina guretzako garrantzitsua da haur eta familia guztiek edo ahalik eta gehienek gure zerbitzuetak

Enara Azpitarte
Naia Mendia
Laura Solana
Eneko Munitxa
Miguel Lancaol

jasotzeko aukera izatea. Horregatik, diru-laguntzak edota deskontuak esakiniko ditugu behar dute familiei, agian deskontua ez da oso handia izango eta ez du aldaketa handirik izango, baina horrela familia gehiagok izango dituzte baliabideak bertara joateko.

Gure zerbitzuetaz disfrutatu ahal izateko minimo astean birritan etorri behar dira haurrak, bakarrik egun bat etorri nahi baldin badute ezin izango dira apuntatu edo bestela bi egunetan joango bazen bezala ordaindu beharko luke.

- **PREZIO DINAMIKOAK:** Guk egunero eskaintzen ditugun zerbitzuetatik gain, beste hainbat zerbitzu eskainiko ditugu, hala nola, prestakuntzak, ikastaroak, hizketaldiak.... Horrelako zerbitzuak hilero birritan izango dira, eta gehienbat helduei doa bideraturik, hurrekin zer ikusia duten helduei hain zuzen ere. Zerbitzu hauek eskuratzeko ez dute zertan hilero kuota bat ordaindu behar, hau da, ez dira gure ohiko zerbitzuetara apuntatuak egon behar, zerbitzu hauek iteresatzen zaion edonork jaso ditzake. Zerbitzu hauen prezioa desberdina izango da, garestiago edo merkeago, izango diren orduen arabera, hitzaldiak edo klaseak nork emango dituenaren arabera...

Hizketaldi eta kurtso hauetara joateko ez da zertan apuntatuta dagoen haur baten guraso edo familia izan behar. Ikastaro hauek biztanleria guztiari zabalduz egongo dira eta gure webgunean izena emon dezakete. Nahiz eta biztanleria guztiari zabalduz egin, nahiko genuke batez ere, hurrekin zer ikusia duten pertsonen izena ematea, hala nola, hezitzaileak, irakasleak, edota haurrak gustoko dituzten pertsonak eta haien garapenean interesa duten pertsonak.